

Herritarrentzako Arreta Bulego Mugikorra

Nafarroako Gobernuak

bulego mugikor bat sortu du.

Hau da, mugitzen den

eta herriz herri ibiltzen den bulego bat da.

Bulego hau kamioi bat da.

Kamioi hau herrietara joaten da

zuk behar dituzun kudeaketak egiteko,

adibidez, administrazioari eskaera bat egiteko.

Horregatik esaten dugu

bulego mugikor hau

zurekin batera mugitzen den administrazioa dela.

Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak

pertsona guztiek erabili ahal izatea nahi dugu,

non bizi diren axola gabe.

Hemen ikus dezakezu

Herritarrentzako Arreta Bulego Mugikorraren argazki bat:



Irakurketa Errazean



Zer egin dezakezu Bulego Mugikorrean?

Bulego Mugikorrean egin dezakezu:

- Nafarroako Gobernuaren zerbitzuei buruzko informazioa eskatu.
- Dokumentuak entregatu
Administrazio guztietarako.
- Zure identitate digitala sortu edo erabili.

Identitate digitala

Interneten nor zaren erakusteko modua da.
Adibidez, Cl@ve edo ziurtagiri digitala.

- Internet bidezko kudeaketak egin.
- Kexak jarri
edo hobetzeko proposamenak egin.
- Bilerak egin.
- Formakuntza jaso.
- Erakusketak ikusi.
- Beste pertsona batzuekin
jardueretan parte hartu,
adibidez, tailer batean.

Bulego Mugikorrean

gaztelaniaz eta **euskaraz** artatu zaitzakete.

Datu interesgarri batzuk

Bulego Mugikorrari buruz

Datu hauek 2025eko martxotik
abuztura bitartean dira:

- Ia 2.000 pertsonari eman diegu arreta.
Ia 1.200 emakumeri
eta 800 gizon baino gehiagori.
- 2.500 kudeaketa baino gehiago egiten
lagundu dugu.
- Bulego mugikorra 22 herritara joan da.
- Balorazio inkestetan
1etik 10erako eskalan
9,6 puntu atera ditugu.
Inkesta hauek
Bulego Mugikorra ebaluatzeko balio dute.


Zer irisgarritasun-neurri ditu Bulego Mugikorrak?

Bulego hau prest dago
pertsona guztiek erabili ahal izateko.

- Talde profesionalak badaki
nola artatu desgaitasuna duten pertsonak.
- Espazioa irisgarria da eta baditu:
 - **Bukle magnetikoa.**
Audiofonoak edo inplante koklearrak
erabiltzen dituzten pertsonentzako
komunikazio sistema bat.
Hau da indukzio magnetikoko buklea:



- **Zeinu hizkuntza zerbitzua.**
Pertsona bat zeinu hizkuntzan komunikatzen denean, bulego honetan zerbitzu hau erabil dezake.
- **Lurrean gidak**
ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.
- NaviLens bidezko ahots-deskribapenak.
NaviLens kodeek pertsona itsuek informazioa entzuteko balio dute.
- Irakurketa Errazean dauden kartelak.
Irakurketa Erraza testuak errazteko modua da, ulermen zailtasunak dituzten pertsonentzat.



Informazio gehiago behar duzu?

Bulego Mugikorrari buruz
edo Nafarroako Gobernuari buruz
gehiago jakin nahi baduzu
egin klik esteka honetan:

nafarroa.eus



"© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/> ".